

Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak %1,0 gehitu ziren urte artean 2015eko hirugarren hiruhilekoan

Prezioen eraginik gabe, salmentak %2,5 gehitu ziren termino finkoetan.

Eustaten datuen arabera, 2015eko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %1,0 gehitu ziren, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmentak %0,2 nominala gehitu ziren, urtaro-eraginik gabe.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. III/2015

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	1,0	0,2	2,5	0,7
Araba	0,5	0,2	3,5	1,4
Bizkaia	1,4	0,4	2,5	0,5
Gipuzkoa	0,6	-0,3	2,1	0,8
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Elikagaiak	0,7	0,5	-0,3	-0,3
Elikagaietan espezializatuta	-3,5	-0,6	-5,7	-1,6
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	3,1	1,7	2,8	1,4
Beste produktuak	4,0	1,5	4,4	1,9
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	2,6	1,8	2,8	3,8
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	6,6	1,3	7,6	1,2
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	4,9	2,1	5,4	2,2
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	2,1	0,6	2,5	0,4
Automoziorako erregaia	-11,8	-3,5	2,6	-1,4
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	2,6	1,1	2,5	1,0
ENPLEGU INDIZEA				
Euskal AE	0,0	0,1		

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

Iturria: Eustat.Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Elikagaien salmenta nominalak %0,7 gehitu ziren 2015eko hirugarren hiruhilekoan urte artean; gainerako produktuenak %4,0 gehitu eta automobilgintzarako erregaiarenak %11,8 gutxitu.


Elikagaien txikizkako merkataritzan, espezializatua %3,5 jaitsi zen eta elikagaiak nagusi diren ez-espezializatua %3,1 gehitu. Gainerako produktuen merkataritzan, gehikuntzak sektore guztietan: Etxeko ekipamenduan espezializatuan %6,6; kontsumo beste ondasunetan espezializatuan %4,9; pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %2,6, gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %2,1.

2015eko hirugarren hiruhileko txikizkako sektorearen salmenta nominalak urte artean: Bizkaian %1,4 gehitu; Gipuzkoan %0,6; Araban %0,5.

Prezioen eraginik gabe, txikizkako merkataritzaren salmentak %2,5 gehitu ziren hirugarren hiruhilekoan urte artean

Txikizkako salmentek -gasolindegia sartu gabe- %2,5eko gehikuntza izan zuten 2014ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, termino finkoetan. Elikagaien txikizkakoan %0,3ko jaitsiera; gainerako produktuetan %4,4ko gehikuntza, 2014ko hiruhileko beraren aldean eta tasa errealetan; automobilgintzarako erregai-salmentetan %2,6ko gehikuntza prezio finkoetan.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%). Prezio finkoak



Elikagaien txikizkakoan, urte artean %-5,7 dugu espezializatuan termino errealetan; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %+2,8. Gainerako produktuen merkataritzan, gehikuntzak sektore guztietan. Etxeko ekipamenduan espezializatuan %7,6; kontsumo beste ondasunetan espezializatuan %5,4; pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %2,8; gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %2,5.

Prezio finkoetan eta urte artean: Araban %3,5eko gehikuntza; Bizkaian %2,5; Gipuzkoan %2,1.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta errealetan %0,7ko gehikuntza dugu aurreko hiruhilekoaren aldean eta urtaro-eraginik gabe.

Euskal AE osoan, 2015eko bigarren hiruhilekoaren aldean, txikizkako merkataritzako sektorean okupatu-kopurua %0,1 handitu da 2015eko hirugarren hiruhilekoan.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen (BMI) gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen (BMI) gaineko datu-bankua